

| PERESTROIKA DALA-TA

DOMUTASUNA TA GIZARTETASUNA

Gaurko mundu zabalean, ekonomi-arloan, jokabide bi daukaguz oso zabalak eta errigintza edo politikarako be ondoren aundiak daukezenak: Domutasuna (Capitalismo) eta Gizartetasuna (Socialismo). Gero jokabide bi orrein erdian eta alboetan beste bide edo erdibide batzuk sortu dira.

Domutasuna ta gizartetasuna bereizteko muga bat ezarri geinke: Lantegien edo ondorenak lortzeko bideen jabetasuna. Gizartetasunarentzat lantegiak eta irabazbideak laterriaren jabetzapean dagoz, domutasunarentzat, ostera lantegiak edo irabazbideak banakakoenak dira.

ONDORENAK

Gaurko laterrien aurrerabidean jokabide bi orreik argi agertzen dira, naizta asko izan erdibidean dagozenak.

Errusia eta komunista diran laterriak zeatz eusten dautsoe muga oneri eta laterri orreitan iñor ezin izan leiteke lantegiaren jabe, laterria izan ezik, eta orrelan oso-osoan alboratu da gizon batzuk beste batzuren izerdia onuratzea.

Laterri Batuak eta beste asko ostera, beste bide batetik doaz: Lantegiak eta ondorenak lortzeko bideak banakakoen edo alkarteen jabetzapean dagoz eta ez dira laterriarenak. Or gizon batzuk beste batzuren izerdia onuratzeko arriskua ikusten dabe gizarte-zaleak.

Baiña ondorenak lortzea bera begiratu ez-kero, gizartetasunaren bidetik doazen laterriak ondoren gitxi lortzen dabe eta laterria bera aberatsa izatea lortu ba'da be, erritarrak geienetan txirotasun gorrian bizi dira, eta, gaiñera, lenintasunak eraginda edo, askatasuna oso mugatuta dauken laterriak dira.

Domutasunaren bidea artu daben laterriak, ostera, laterri aberatsak dira eta erritarrak be askatasunean eta ondasunez orniduta bizi dira, naizta olakoetan be ugari izan txiro-lekuak.

ZERGAITIK?

Ori, gitxi gorabera, orrelan izateñ dala ikusirik, itaun batzuk datorkuz eta erantzuna emoten alegindu bear gara.

Zergaitik bizi dira txirotasunean gizartetasun-bidea dauken laterrietako erritarrak?

Lenengo ta bein, lanaren ondorena dan ondasuna norberarentzat ez danean, lanean alegin gitxiago egiten dalako. Ori gizonen majaltasuna da, norberekeria da, baiña gizonak olakoxeak gara eta laterriarentzat lan egiteak laster aspertzen gaitu, ez ostera norberarentzat lan egiteak.

Gaiñera ezin ukatu, laterri aundi orreik izkilibidean eralketa ikaragarriak egin dabezena. Beste bideko laterriak be ori berori egin dabe baiña aurrera urten. Gizarte-bidekoak ez dabe lortu, antza.

ZEIN ONENA?

Domutasunak norberekeria dau oiñarri, eta ori gizona okerbidera makurtzea da, gizartetasunak ostera, askatasuna kentzen dau eta gaiñera ainbeste urte igaro ondoren ez dau lortu erritarraren txirotasuna kentzea.

Urtenbide bat: Gizonari bere askatasuna emon eta erri-erakundeetan demokrazia sartu, baiña ondorenak lortzeko bideak edo lantegiak laterriaren eskuetan dirala. Ori litzake gizarte-

-demokraziaren bidea, baiña ez da lortzeko erreza. Gaiñera indarra galduta dagozan gaurko gizarte jokabideak oraindiño askoz geiago bi-gundu dabe euren egitaraua: gizarteratzea ge-roko elburu lez izten dabe eta oraingoz naikoa dalata dagoz, zergen bidez laterri-ondasuntzak sendotzea.

PERESTROIKA:

Errusia'n eta bere inguruko laterrietan gogor artu izan da gizartetasunaren bide ori etorkizun-ean askatasunera eltzeko itxaropena eskiñiz.

Baiña urteak joan eta urteak etorri, ez da agertu askatasunaren giroa eta erriak itxaropena galdu dau.

Gorbatxob agintaria izan da orretzaz lenengo konturatu dana eta aldakuntza arrigarri bat es-

kiñi dautse erriai: Errusia'k berak beintzat ko-munista izaten jarraitzen dau, baiña aberriak kontuan artu eta onei burujabetza geiago eskiñi-ta, agintaritza gogorraren ordezk demokrazi-antzeko bat eskintzen dala.

Antzeko aldakuntzak ikusten doguz Polonia'n, Sortaldeko Alemanian eta beste laterri batzutan, Txina'n ostera olako jokabidea orain-goz zapaldua izan da.

Dana dala, aspaldiko urteetan zomau ez dan askatasun-giroa ikusten dogu gaur laterrien ar-tean, itxaropen barri batek egin dausku argi.

Bai giro orretan bizi izan diran laterrientzat eta bai Europa'ko sartaldean alkartuta dagozan beste laterrientzat, mundu barri bat bat asi dala sortzen esan lei eta itxaropen onek ez al dausku utsik emongo.

GAMIZ'ek

"ZER" ALDIZKARIA-DIRUZAINZTA

OARRA

Ez dira gitxi gure ZER onen igazko ordain-saria emon ez dabenak, Eskaritzu bat egiten dautzuegu: Ordaintzeko erarik errezena txeke bat bialtzea dozue. Igazkoa ordaintzekotan 1.000 pezeta eta aurtengoa ordaindu nai ba'dozue, beste 1.000 pezeta.

Diru aldetik naiko estu gabiltz, arren eskatzen dautzuegu ba: Artu egizue kontu idegiko txeketegia eta bialdu dirutza orregaz EUSKERA-ZA-LEAK ALKARTEA'ri. Sartu txekea karta-azal baten eta bialdu zuzenbide onetara:

EUSKERAZALEAK
Colon de Larreategi, 14, 2.^a
48001 BILBAO

ESKERRIK ASKO!!!